

## Christian Gomez Sanchez-ek bere Tesia irakurri du

2014/03/21

Martxoaren 21ean, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Christian Gomez Sanchez Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitateko Aula Magnan. Tesiaren izenburua Nanocomposites bioabsorbibles para aplicaciones biomédicas eta tesi zuzendariak: Jon Aurrekoetxea eta Alberto Lopez. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Maria Lluisa MasPOCH Ruldua (Universidad Politécnica de Catalunya (UPC)) Dk. And.
- Mahaikidea: Miguel Angel Sánchez Soto (Universidad Politécnica de Catalunya (UPC)) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Ibon Odriozola Aguirre (IK4-CIDETEC) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Andrea Aginagalde Lopez (Mondragon Unibertsitatea) Dk. And.
- Idazkaria: M<sup>a</sup> Asunción Sarrionandia Ariznabarreta (Mondragon Unibertsitatea) Dk. And.

Ehunen Ingeniaritza diziplina anitzeko zientzia bat da, non teknika konbentzional bidez garatu ezin daitezkeen gaixotasun kronikoen eta/edo traumatologikoen sendaketa aztertzen du. Tesi honetan peg-POS/PLLA bio-nanokomposite-a sortzen da *scaffolds*-en fabrikaziorako *electrospinning* bidez, zelulen hazkuntzen eta kartilagoen birsorkuntzaren aplikazioetarako. *Scaffolds*-ak, DSC, TGA, IR eta SEM bidez karakterizatu dira, baita haien biokompatibilitatea eta biodegradazioarekiko erresistentzia ere.



Christian Gomez Sanchez-en tesia